

# Riiiiiiing

Arantxa Iturbe

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
1989



Zumaiaiko Udala

*emskara  
txanpan*



# Riiiiiiing

Arantxa Iturbe

Julene Azpeitia 2. Ipuin lehiaketa

1989

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Arantxa Iturbe (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Egun batetik bestera hasi zen erietxea betetzen. Azkenean gela bereziak sortu behar izan genituen gaixo guzi haientzat eta ni naiz gaur egun bertako buru: telefonoaren gaitzak jotakoen gela berezietako Arduradun Nagusia izendatu ninduten.

Erietxeko zuzendari jaunak deitu ninduen berria emateko eta segituan jarri nituen ingurukoak jakinaren gain, dei pare batekin. Telefonoak ez ziren isildu arratsalde osoan —hiru linea ditut nire bulegoan eta Arduradun naizenetik beste bi jartzeko hitza eman zidan sailburuak—. Denek zoriondu nahi ninduten, eta arazoak ere berehala hasi ziren: gaixo batek ea ingresatzeko tokirik izango ote zuen galdetzeko hots egin zidan, erizainak bigarrenekoa larri zegoela esateko, kazetariak elkarrizketa bat lortu nahian eta nire senarrak ea bazkaltzeko ze asmo nuen galdetu eta bide batez, nirekin hitz egitea ezinezkoa zela adierazteko: "goiz osoan ari naun deika eta ez zegoen hire linea libre harrapatzeko modurik!", oihu egin zidan. Orduan hasi ziren nire susmoak.

Hamabost urte pasa dira nire tesia idatzi nuenetik. Barre egin zidaten kolega askok aukeratutako gaia jakin zutenean baina haiek ez zuten nire lehendabiziko senarra ezagutu ez alajainena! Ez zen hemengoa. Filadelfian jaioa, New Yorken egin zituen ekonomia ikasketak eta bertan geratu zen multinazional batetan lana aurkitu eta egoitza baten zama eramanean zezan hona bidali zuten arte. Jim Clayton gizarajoa! Maiteminduta geundenean izugarri pozten nintzen bere ahotsa entzutearekin bakarrik (psikiatrank ere berdin maitemintzen gara). Hamar minututik behin jasotzen nuen deiren bat eta "Clayton Jauna da" entzute hutsarekin zorabiatzen nintzen. Orduan oraindik ez neukan bulego propiorik baina saileko lankide guziek zekiten gure amodioaren berri. Behin ezkondu eta gero ere, hamar minututik ez baina ordulaurdeno hots egiten zidan. Askotan, gehienetan ezer ez esateko. Besterik gabe, zer moduz ote nengoen galdetzeko eta noiz edo non elkar ikusiko genuen erabakitzeko. Bizpahiru urtetara ia jasan ezina bihurtu zitzaidan. Esan egin nion, alegia, lana ere galarazi egiten zidala hainbeste deirekin eta mesedez pixka bat neurtzen hasteko. Sekulakoak entzun nituen bueltan! Ia ez nuela maite, aspertu ninduela, nazkatu nintzela bera ikusteaz, nola ba? Elkar ikusi ere apenas egiten genuen eta!

Azken eguna oso tragikoa izan zuen. Etxean nengoen bere zain. Turnoa bukatuta. Zinera joatekoak ginen. Hamar minutu lehenago bazetorrela esan

zidan telefonoz. Kotxetik deitu ninduen ondoren (ordurako ekarria zuen bere heritik autorako telefonoa) eta prest ote nengoen jakiteko eta ordu-laurden barru hemen izango nuela adierazteko. Hirugarren deia ere kotxetik egin zuen: "Istripu bat izan dut, l.a.z.t.a.n.a".

Bere azken hitzak izan ziren.

Gaixorik zegoen: telefonistak erabat jota, berak onartu nahi ez zuen arren eta bere kasua aztertu, sakondu eta argitu ondoren gaitz berri honi buruzko tesia egiteko gogoia sartu zitzaidan, bere ohoretan.

Argitaratzeko zailtasun guziak gainditu eta gero, barre egin zidaten asko, nire ardurapeko gelatan daude egun, sendatu zain.

Berriro ere ezkondata nago, eta askok ez du istorio hau sinetsi nahiko baina egia guzia kontatzen ari naiz. Psikiatren biltzarra egiten dugu urtero erietxean. Hauetako batean, orain zortzi urte ezagutu nuen nire bigarren senarra. Zerbait edaten ari ginen kontu kontari eta hurrengo egunean etxera deitzekotan geratu zen, baina ez harritzeko deia mozten bazen, auzoko kabina guziak beti hautsita egoten zirela eta.

—Telefonorik ez al daukazu orduan?

—Ba... oraindik ez, duela gutxi etorri naiz etxe honetara eta...

—Jartzen ez baduzu, uste dut bizi guzirako maiteminduko naizela zutaz, erantzun nion. Txundituta geratu zen noski eta hasieran, ez zuen telefonorik jarri. Horrek ere baditu bere desbentajak. Edozein enkargu eman behar banion ikusi arte itxaron beharra izaten nuen eta ezinezkoa bazen hamaika buruhauste izaten nituen bereganaino heltzeko. Baina beti lortzen nuen.

Eneko du izena eta orain nire sail berean egiten du lan, beheko pisan, eta beldurtzen hasia nauka honek ere, izendatze egunean bezala adibidez, gero eta gehiago deitzen didalako, nireganaino etorri beharrean.

Etxean ere azkenean telefonoa jarri behar izan genuen lanaren aitzakia tarteko.

—Telefonitis gaitzaren ondorioz hil zorian dagoen norbait ezagutzen al duk? esan nion nire onetatik aterata. Egia da, oraindik Luisaren kasu tristea bizitzeke nengoela.

Gaztea zen Luisa. 20tik beherakoa. Amak, oso arduratuta ekarri zuen lehendabiziko egunean kontsultara.

—Nik ez dakit ba zer esan doktora. Aitak erotuta ni nagoela esaten du, baina neska honek egun osoa egiten du telefonotik zintzilik, isildu ere egin gabe, eta zerorrek ikusiko duzun bezala, bestela, mutua dirudi.

Oso larria zen bere egoera. Ama sintomak kontatzen ari zitzaidan bitartean ez zuen tutik ere esaten. Ezta txintik ere! Betiko trukua erabili nuen: telefonoa hartu eta Luisa? deitu nion. Aurpegia zertxobait alaitu zitzaion baina eskura telefonorik ez zuela sumatzean goibeldu egin zen ostera. Nire mahaiari beste bi aparatua libre seinalatu nizekion eta orduan bai, orduan bai poztu zela benetan! Hizketan hasi ginen eta amak zioena egia ote zen galdetu nionean, lagun guziak urruti zeuzkala eta haiekin hitz egiteko behar zuela telefonoa erantzun zidan.

Hain gaizki ez zegoela baina ingresatzeko aholkua eman nion amari. Gau batean, erietzeko terrazatik bere buruaz beste egin zuen salto batez. Aurretik pasilloko telefonotik hots egin zidan, munduko telefono guziak, desagertu egin zirela amestu zuela esateko. "Eta ni, bakarrik".

Pasilloko telefonoa! Hura bestea! Lortu berria nuen kargua galtzeko zorian izan nintzen zuzendariarekin nituen tirabiren ondoren. Berak nire gaixoen ingurutik telefono guziak kendu egin behar zirela behin betirako ahantz zezaten. Hain erraza balitz bezala! Nik berriz, pasillokoa sikiera utzi behar zitzaizela telefonoa behar zenean erabiltzen ikas zezaten. Azkenean nire argumentuak atera ziren irabazle administrazio kontseiluaren aurrean, Luisarena gertatu zen arte. Dei hark lur jota utzi ninduen eta nire egoera psikikoa arriskuan ikusi zutenean, pasillokoa ere indargabetzea erabaki zuten. Orain gauetan zaindari geratzen den erizainaren gelan bakarrik dago telefonoa, eta hau erabiltzeko klabe berezi bat jakin behar da. Alferrik izan ziren Jesus gizagaixoak gauero harantz egin zituen ihesaldiak. Bere egoera larritzeko bakarrik balio izan zuten.

Jesusek hiru hilabete egin zituen nire ardurapean baina azkenean, sendatu gabe joan zen, berak kontrakoa uste duen arren. Astean behin deitzen dit kontsultaren bat egiteko eta edozein azalpen emanda ere berak komeni zaion modura hartzen ditu eta berean jarraitzen du. Ezin du telefonorik gabe bizi. Nire aurretik pasa diren kasurik larrienetakoa izan da Jesusena. Askotan, lanaren beharrez telefonoaren erabilpena defendatzen dugun arren, Jesusen arazoa alderantzizkoa bihurtu zen: lana galdu zuen telefonoaren erruz. Egun osoa batera eta bestera deika pasatzen zuela ikertu zutenean, bidali egin zuen lan egiten zuen banketxeko zuzendariak. Hasieran gainera, inork ez zion jaramonik egiten, laneko deiak egiten zituela pentsatuz, baina bulegoan bertan lan egiten zuen beste bat jabetu zen lanaz aparteko gauzez aritzen zenaz.

Gaixotasunak punturik gorena hartu zionean, edozein tokitara deitzen zuen: informaziora existitzen ez zuen telefono zenbaki bat eskatzeko, ordu informaziora erlojua behar bezala jartzeko, kirol informaziora, igandeko partiduak bost axola zitzaizkion arren halako ekipoak zer egin ote zuen galdetzeko, edota poliziara ez dakit zein etxe sutan zegoela jakin arazteko.

Lanak ez ezik emazteak ere utzi egin zuen Jesus, bi hiletik behin zer nolako kontuak iristen zitzaizkion ikusi eta gero. Tira, telefono kontuak ez ziren izan arrazoi bakarra, baina bai berak juezaren aurrean azaldu zuena, eta familia porrot egiteko bidean zeramala eta epaileak segituan onartu zuen bananketa.

Bakarrik geratzea kaltegarriagoa izan zen oraindik berarentzat. Numero tekladunak dituen telefono bat erosi zuen disko orokorra duenarekin denbora gehiegi tardatzen baitzuen numeroak markatzen. Eta harekin ere larriagotuz joan zen. Ez zuen jasaten telefono bat komunikatzen entzutea. Ezin zuen hori entzun. Pi-pi, pi-pi, entzutearekin batera hasten zen bere onetatik ateratzen, erabat atera zen arte. Hauetako shock batekin ekarri zidaten erietxera, txorien moduan pi-pi eginez. Beste hainbeste gertatu zitzaion erizainaren telefonoarekin ere. Juizioa erabat galduta zegoen eta gu konturatzen ginen egunetik egunera hobetuz joan beharrean okerreko bidea hartzen ari zela. Gau batez neroni geratu nintzen hura zaintzen eta ikusi nuen erizainaren gelara ihes egiten. Han hartzen zuen telefonoa, baina honek, pi-pi besterik ez zion

esaten, klabea markatu bitartean. Alta eman behar izan nion erremediorik ez zuenez.

Ez da gaixotasun larria telefonoarena. Uste dut hasieran ere esan dudala neroni ere gaixotzen hasita ote nagoenaren susmoak baditudala. Izan ere, hainbeste deiren artean, zatika-zatika idatzi beharra daukat istorio guzia; ez naute lasai uzten! Bateko hitzaldia dela, besteko diagnostikoa! Baina pixkanaka uste dut ari naizela kontatu nahi nuen guzia kontatzen. lazko eguberrietan sortu zitzaidan ideia. Ez nuen postal bat bakarria ere jaso! Adiskide izeneko guziek telefono dei batekin konpondu zuten egun berezi horietako konpromisoa! Zenbat kostatzen da ba bi hitz idaztea? galdetu nion nire buruari, eta nire kasu guziak idatzita uztea erabaki nuen. Baina telefono madarikatu hau isiltzen ez bada...

Ez dut oraindik Piliarena aipatu ez? Marilyn Monroeren fan sutsua zen Pili. Berak bezala bizi nahi zuen, eta hori baino inportanteagoa: berak bezala hil nahi zuen. Gainontzeko detaileak ez zitzaizkion gehiegi inporta baina telefonoa, deskolgatuta ondoan zuela hori bai! Eta zer erabaki zuen? Zer erabakiko zuen ba? Egun osoa telefonotik zintzilik egote honek ere, ordua iristen zitzaionerako egoera hartan harrapa zezan. Ez dut jakin bere heriotzaren berri, ez zen oraindik hilko. Erabat galdu nion hari pista, jan zenetik...

Elena izango da dudarik gabe izan dudan gaixorik interesgarriena. Interesgarria, azkarrena bera zelako. Hura zen hura memoria! Izugarria. Ez zuen lortzen pertsona baten edo toki baten izenik buruan gordetzea, baina numeroak esanez gero, ez zituen sekula ahazten. Bere senitartekoak, beti gertatzen den legez, lehendabiziko sintomak agertu zitzaizkionean ez ziren arduratu. Baina behi konbertsazio normal bat emateko gauza ez zela jabetu zirenean preokupatu ziren. Hasten omen ziren bazkalorduan norbaitez hizketan, eta Elena sekula ez omen zen konturatzen nori buruz ari ziren. Azkenean, ber anai txikiena jabetu zen, numeroei esker identifikatzen zituela pertsonak. Pentsa ze nolako elkarrizketak izango ziren familia hartakoak!

—Bai neska, Karlos lanik gabe geratu dela.

—Karlos? Ze Karlos?

—Ez esan Karlos ezagutzen ez duzunik. Beheko harategian lan egiten duen mutil gazte hori.

—Ba... ez naiz jabetzen... ez.

—Makina bat aldiz joan zara ba bertara xerrak erostera... Eta bat-batean anai txikiak, listina hartu, harategiko zenbakia bota eta orduan: Ah bai! Karlos, noski, Karlos al zuen izena?

Elena konturatu zen gainera gaixo zegoenaz. Bere kabuz etorri zen erietxera —kasu bakarria honetan dramatzadan urte guzietan—; lehendabiziko egunetan listina esku artean hartu eta numero guziak ikasteari eman zion. Bi probintziak ikasiak zeramatzan jadanik, ezertarako balio ez ziotela ikusi zuen arte. Zertarako numeroak ikasi gero erabiltzeko telefonorik ez bazegoen? Eta egun batetik bestera, numeroei berriro izenak ematen hasi zen, eta bere kasa sendatuz joan zen.

Oraindik ez dut sendabiderik aurkitu. Hori da tristeena. Horrexek pentsa arazten dit noiz behinka egindako lan guzia alferrikakoa izan ote den. Bost

minutu ez da oraindik Mariluk deitu didala, hilabete egin zuen erietxean eta ustez erabat sendatuta zegoen, eta berriro erori dela kontatzeko deitu dit.

Bere aitak ingresatzeko ekarri zuen garaian sei telefonobio zituen. Denok apustu egingo genuen telefonista zela, baina ez, langabezian zegoen, eta etxean egiten zuen lan, etxeko lanetan alegia, aita alarguna eta hiru anai arreben janaria prestatzen, arropa garbitzen eta etxeak ematen dituen gainontzeko lanak betetzen. Eta halere, sei telefonobio izateko denbora ateratzen zuen! Duela urte batzuk, ez zen telefonobiorik. Orain ia ez da hain kasu arraroa, baina sei batera zituenik ez dut oraindik nire bizitza guzian ezagutu.

Lehendabiziko telefonobioa butanero bat izan zuen. Astean behin deitu behar zion butanoa eskatzeko, eta bere ahotsak erabat zorabiatuta utzi zuen, maiteminduta, eta deklaratu egin zitzaion. Bigarrena supermerkatuko enkarguak hartzen zituen mutila: hark ere txoratu egin zuen, eta horrela bata bestearen atzetik, eta batera. Eta arazoa ez zen telefonobioak aurkitzearena. Pertsona batzuk grazia berezia izaten dute telefonoz hitz egiterakoan eta ez da harritzekoa bat baino gehiago maitemintzea. Problema oso bestelakoa zen: sekula ez zen ausartzen bere telefonobioetakoak ezagutzera. Batekin, butaneroarekin, ezkontzeko eta guzi ibili zen, baina beti telefonoz. Eguna joan eta eguna etorri elkar ez ikusteko izeba aitzakiaren bat sortzen zuen: aita gaixotzen ez bazen, izeba bat bisitatzera joan beharra izaten zuen, eta guzia, beldurragatik. Berak kontatzen zuen barru barrurainoko beldurra sartzen zitziola bere maitearen ahotsa entzun eta gero ikusten zuena beste gauza bat zela imajinatze hutsarekin. Butaneroa nazkatu zen arte noski. Eta hura bezala gainontzekoak, eta tristetuz joan zen, bizitza ez maitatzerainoko tristura sartu zitzaion...

Beldur guziak galdua joan zen hemendik, baina duela gutxi kontatu didanez, egin du berriro ere antzekoren bat. Aitak debekatu egin zion telefonoa erabiltzea, baina lehengo batean, bat-batean, sekulako tripako minak jo omen zuen gizarajoa, eta mesedez taxi bati hots egiteko eskatu omen zion. Dei batengatik ezer gertatuko ez zelakoan deitu omen zuen, baina "halako ahotsa zuen..." esan dit. Gutxienez berarekin geratzeko aholkua eman diot, eta saiatuko denaren hitza bueltatu dit berak, baina promesarik gabe. Badaki berriro ere telefonobioen zerrenda egiten hasiko dela, gaitz hau, sendatu itxura eman arren berriro agertzen delako.

Akaso erabat sendatuko dena Alberto izango da. Eta sendatzen bada beste erremediorik geratuko ez zaiolako izango da. Kartzelan dago. Lau hilabetetako kartzela zigorra betetzera kondenatu dute entzun behar ez zuen konbertsazio bat entzuteagatik. Saiatu nintzen epailearen aurren gaixorik zegoela demostratzen, baina alferrik izan ziren nire saiakera guziak. Barre egin zidaten gainera, eta pertsonaren askatasuna lehenago dagoela bota zidan aurpegira fiskalak. Kostata hitz egingo du gizagaixoak kartzelatik telefonoz eta orduan sendatuko da akaso erabat.

Albertok ere telefonitis kronikoa zuen, eta du oraindik. Hogeita lau orduetatik hamabi pasatzen zituen telefonoa eskuan, eta behin, telefono kableen misterioak tarteko, beti emakume baten ahotsa entzuten zuela jabetu zen. Beti emakume bera. Beti gizonezko berarekin hizketan, eta beti maitasun kontuez gainera. Egunak joan ahala edozein aitzakiarekin hartzen zuen telefonoa bi maiteminduen arteko elkarrizketak entzuteko.

Goiz batean egunkaria aurrean zuela bere telefonoko emakumea ikusi zuen bertan. Ez zuen ahotsez ezagutuko noski, bere maitaleak izena bi hitzetik behin botatzen ziolako baizik, eta jakin ere bazekien Albertok, hiriko abokaturik inportanteenetako bat zela (eta bere maitalea, epailea). Lan kontuekin zerikusirik ez zuen arrazoi batengatik agertu zen emakumea egunkarian: ezkontzera zihoan, nola ez, hiriko enpresaririk ospetsuenetako batekin gainera. Egun hartan askoz ere arreta handiagoz jarri zuen bere belarria telefonoan. Eta bikotearen asmoez enteratu zen: ezkondu eta proba faltsuak erabiliz dibortzioa lortzeko asmoa zuten, bien bizimodua konponduta geratzeko adinako kopurua lortuz. Biak gainera, lege kontutan iaioak izanik ez zuten printzipioz arazorik izango.

Ez zuten kontutan izan, Telefonikako hariak bide asko egiten dituztela iritsi behar duten tokira heldu baino lehen.

Albertok, enpresari gizarajoaz errukituta, joan eta kontatu egin zion. Dena. Ordura arte entzundakoak, etorkizunerako asmoak, eta enpresariak bertan behera utzi zituen abokatu ezagunarekin ezkontzeko planak. Hirian sekulako eskandalua sortu zen, inor ez baitzen gertatutakoaren pista bilatzeko gauza! Baina abokatua ez zen alferrik abokatu eta nola edo ala jakin zuen Albertoren berri, eta auzitara eraman zuen.

Gainontzekoa esan dut. Kartzelan dagoela alegia. Eta nire testigantzak, gaixo zegoela esateak bere auzia okertu besterik ez zuen egin. Inork ez zuen sinistu telefonitisa gaitz bat, benetako gaitza denik, eta ziur nago epaiketa hartan zeudenetatik ehuneko 70a gutxienez gaixo zegoenaz. Abokatua bera, adibidez.

Nire tesiak kontrako ugari izan ditu. Seguru nago hala ere, lasaitasun pixka bat emango balidate, sendabidea ere neronek aurkituko nukeela. Baina ez didate momentu bat libre uzten. Behin baino gehiagotan gainera, deiak berak, mehatxuak izaten dira. Norbait beldur da dirudienez, gaixotasuna zabaltzen ari dela sinistarazten badut, telefonoaren erabilpena gutxituz joango dela, eta horrek min egin dakioke norbait horri... Azken aldi honetan mehatxu batzuk ere jaso ditut, telefonoz hauek ere. Senarra beldurtu ere beldurtu zen lehendabizikoarekin. Baina gerora bat ohitu egiten da. Telefonoak jotzen duen bakoitzean zirrara berezi bat sortzen zitzaidan lehenengo egunetan, baina azken finean ez da egunoro, egun normaletan sortzen zaidan zirrara baino askoz ere fuerteagoa. Batek ezin du jakin sekula nor izango den telefonoaren bestaldean dagoena, eta horrek bere emozioa ematen dio dei bakoitzari. Horregatik da dei bakoitza besteren diferentea. Horregatik daukat telefono bat etxe bakoitzeko gelan. Horregatik saiatzen naiz beldur guziak uxatzen eta nire gaixotasunaren hastapenak auto-terapiaz sendatzen.

Momentu honetan ezin dut aurrera jarraitu, dei garrantzitsu baten zain nagoelako. Baina egunen batean... egunen batean aurkituko dut nire gaixo guziak sendatzeko modua, eta orduan, orduan...

Riiiiiiiiing! Riiiiiiiiing!